


Astekaria



elgoi



# Animaliak etxean



## ALBAITARITZA KLINIKA

**ABERE TXIKIETAN ESPEZIALIZATUAK**



San Roke, 26 (tren geltokiaren gainean) ELGOIBAR

Telefona 74 07 04 • LARRIALDIK (24 ordu) 908 87 39 40

ORDUTEGIA: Goizez 11-13, arratsaldetan 5-8 eta larunbatetan 11-13,30



# BARREN

O.H.O.KO IKASLEEKIN EGINDAKO 20. GEHIGARRIA



**J** oan den astelehenean izan zen Santa Ageda eguna. Eta ohiturari jarraiki, Elgoibarren bai larunbatean bai eta igandean ere, bezperan, koplariak eta koruak aritu ziren Santa eskean. Pilar ikastetxean ere atera ziren haurrak, baserritar jantzita, makila eskuan eta ilusioz beteta. Nagusiagotxoak adi-adi paperera begira ikusten dira argazkian, kantuan. Txikienek, ordea, nahiago izaten dute makilarekin jolastea, argazki kamarari begiratzea edo beste edozertan ibiltzea. Adin kontua.



## *Txiki tristea*

- Zertan dira ezberdinak arkakusoa eta elefantea?
- Elefanteak izan ditzake arkakusook baina arkakusook elefanterik ez.

## Jakitunen eskutik

### Haurrak eta musika

Musika beti izan da oso garrantzitsua Euskal Herrian. Izan ere, tradizio musikal handiko herria gara. Dantza taldeak, abesbatzak, bandak... denetik egon izan da eta dago, eta gure eguneroko bizitzan eragina dute.

Gaur egun Elgoibarren gure seme-alabek oso gazte direnetik dute aukera musika ikasketak egiteko Musikeskolan.

Berez, eskola orduetatik kanpoko beste ekintza bat gehiago da eta horrek sakrifizio txiki bat dakar bai gurasoentzat bai eta ikasleentzat ere. Halere, musika mundura hurreratzeaz gain, autodiziplina bultzatzen eta pertsonalitatea garatzen laguntzen du, besteak beste. Talde lana izan ohi da eta heziketa kultural bat jasotzen dute haurrek.

Musika ikasketak zenbat eta lehenago hasi, orduan eta hobeto.

Izan ere, musikaren ardatza melodia da eta honek haurrengan eragin afektiboa du.

Gainera, haurren partehartzea bultzatzen da eta maila lortzen dutenean, Eskolak dituen hainbat taldetan parte hartzeko aukera dute: Banda Txikian, Soinuen orkestan, Txistu Taldean, Dantza taldeetan eta abar... Hauen guztien bidez, kontzertuak ematen dituzte, gertutik bizitzen dute mundu hori, beste ikastetxe batzuekin interkanbioak egiten dituzte...

Oso garrantzitsua da gurasoen jarrera. Hauek kontzertuetara azaltzea komeni da, bai beraien seme-alabek parte hartzen dutenean bai eta bestelako profesionalen emanaldiak izaten direnean ere. Azken finean, gurasoen babesik gabe hezitzaileen eta antolatzaileen lanak ez baitzuen aurrera egingo.



MARI JOSE ZUBIAURRE

## Zer iritzi daukazu .....*ihauteriei*..... buruz?



"Oso iritzi ona dut, ondo dagoelako beste norbaiten itxura hartzea."

AITOR AZKUE 10 urte



"Egun magiko bat da, eragutzen duzun jendea ez duzulako eragutzen."

IBAI GARATE 12 urte.



"Niri buruhaundiak, festa eta karameloak gustatzen zaizkit. Ni Kleopatraz mozerretuko naiz."

SARA PEREZ 8 urte




**Mctvc Karp g**  
9 wt vg

## Galde debalde

- Zein kolore izan nahi zenuke?
- Noren kareta jantziko zenuke?
- Zein jolas duzu gustukoen?
- Superman ala Batman?
- San Blas eguneko kordela ba al daramazu?
- Zenbat urte bizi nahi zenuke?
- Sorginak existitzen al dira?
- Nori emango zenioke musu bat?

1. Gorria, bihotzan koloria dalako.
2. Drakularena, jendea beldurtzeko.
3. Ajedreza, nahiko ona naiz.
4. Superman, ezagunagoa delako.
5. Aurten ez ze nere ama ez zegoen eta nire aitona ez zekiten.
6. Asko, ehun edo, ez hiltzeko.
7. Ez, hori ipuinetan bakarrik agertzen da eta pelikuletan.
8. Nire amari, moffetian.



**Tzqo lp Lcttc c**  
13 wt vg

1. Gorria, kolore bizixa dalako.
2. Sikopata batena.
3. Futbola, kirola.
4. Batman, bere komiki eta pelikula gehixo ikusi ditzutelako.
5. Bai, 9 egun eraman eta gero erre eitzen dot, katarruen kontra.
6. 86, nire birraitona batek bezela.
7. Lehen bai, Akelarriak egiten zitxuzten. Oin ez dakit, igual etorkizuna asmatzen dabenak edo...
8. Claudia Schiffer-eri, masailian.

## Zer da... *infernua* ?

**AITOR MUGERZA 9 wt vg**



"Infernua oso haserre zaudenean gertatzen da. Zuk infernua sentitzen duzu."

**MAITE MUGERZA 7 wt vg**



"Deabrutxo barregarriak egoten diren eta sua egoten den lekua da."

**JANIDE EGUDEN 9 wt vg**



"Hil aurretik bekatuak egiten dituzunean, hiltzean infernua deituriko lurrazpiko herria ezagutzen duzu."

**LORENA BABARRO 11 wt vg**



"Infernua txarra da. Ni naiz infernua, ja, ja, ja..."

**AITOR ARDUABARRENA 7 wt vg**



"Infernua gaiztoak joaten diren lekua da eta amari kaso egiten ez diotenak ere bai."

**SADA LASKUDAIN 11 wt vg**




"Lehen esaten zenez, pertsona txarrak infernura joaten dira hiltzen direnean eta besteak zerura."

# Denborapasak: ezetz asmatu!

**1. Nor da elgoibartar hau?**



**3. Batu puntuak arkatzez eta ondoren margotu marrazkia.**



**2. Zer galdetu diegu beraiek erantzun hau emateko?**



**XABIER LOPEZ**  
6 urte

"Pocahontas-eko protagonistia eta bestela Robin Hood, abenturekin eta neska politxeekin. Baina haundixa naizenian ez dot nahi aktoria izatia, lan asko ein bihar da eta. Nik moto-crossian ibili nahi dot.

**ARKAITZ BERNEDO**  
12 urte

"Abenturazko batean. Tiburon bezalako batean gustauko litzaidake eta ahal izanez gero, txarra izatia nahiko naban. Negar eixtekuak eta maitasun istorioak asperraxak dia".



**4. Asmakizunak:**

- Zazpi anaietatik nagiena naiz ni, beti daukat jai beti nago alai.  
Zer da?.....
- Zerez beterik pisatzen du upela batek gutxien?  
.....
- Nor da besteen haginekin ondo jaten duena?  
.....

ERANTZUNAK: 1- Maite Franco, Maite pastelerakoa. 2- Zein pelikuletako protagonista izan nahi zenuke?. 4- Igandea, zuloz eta dentista.





Pilar ikastetxeko gurasoen, irakasleen eta ikasleen Elkarte Hezkuntzak,  
 San Viator klerigoen eskutik honako heziketa eskaintzen dizue:  
**EUSKALDUNA:** Behar kultural eta sozialei erantzunez.  
**KALITATEZKOA:** Erreformari egokitua.  
**KRISTAUA:** Balore kristauak bereziki lantzen dituena.  
**SOZIALIZATUA:** Elkarbizitzarako eta baketzerako baloreak garatzen duena.

### **D.B.H. (E.S.O.)**

12-16 urte  
 B eredu INDARTUA  
 Pedagogi-Titulartasuna:  
 La Salle Elgoibar

### **LEHEN HEZKUNTZA**

6-12 urte  
 B eredu INDARTUA

### **HAUR HEZKUNTZA**

2-6 urte  
 D eredua

### **ESKAITZEN DIZUEGU:**

- **HEZKUNTZA ELKARTEA:** (Ikasle, Guraso eta Irakasleak) identifikatua eta partehartzailea.
- **GELA BEREZIAK:** Informatika, teknologia, liburutegia, laborategiak, polikiroldegia, psikomotrizitate gela...
- **EKINTZA OSAGARRIAK:** Kirolak, txapelketak, txangoak, antzerkiak,...
- **JANGELA:** Irakasleen ardurapean.
- **LAGUNTZA PSIKOPEDAGOGIKOA:** Bertako psikologo eta pedagogarekin.
- **ZENTRU KONTZERTATUA:** 2 urtetik 16ra bitarteko irakaskuntza baimendua eta subentzionatua.

elgoi**BARREN**  
Nafarroa enparantza 2  
☎ 74 41 12

**ARGITARATZAILEA:**

Elgoibarko Izarra.

**LAGUNTZAILEA:**

Elgoibarko Udala.

**ZUZENDARIA:**

Ainhoa Lodoso.

**ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:**

Andres Alberdi.

**KAZETARIAK:**

Ainhoa Lodoso,  
Jasone Osoro.

**MAKETATZAILEA:**

Maite Rementeria.

**ADMINISTRAZIOA:**

Amaia Martin,  
M. Angeles Ortuoste.

**KOLABORATZAILEAK:**

Irati Agirreazaldegi, Xabier Ansola, Nekane Aranburu, Pello Arrieta, Ina Garagarza, Amaia Gorostiza, Maite Iriondo, Edu Iriondo, Alberto Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Javi León, Juan Mari Mendizabal, Milagros Oiarzabal, Benantzio Otegi, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta, Deñe Zabalo, Lucia Zubiaurre.

**BANAKETA ARDURADUNA:**

Imanol Larrañaga

**INPRIMATEGIA:**

Gertu koop. E.  
(Zubillaga Oñati)

**TIRADA:** 3.500 ale

**LEGE GORDAILUA:** SS-1.038/92

**ISSN:** 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



• kutxa fundazioa  
• fundación kutxa



## Kontsumitzaile kontsumitua

**H**au ez da gure gizarteko iragarki bat, gaurko bizimoduaren ardatz bezala eraiki den bere ondorio negatiboa baizik.

Bizi dugun industri zibilizazioak bere produkzioa mententzeko gu denok sartzen gaitu kontsumo kate horretan. Jakina da ezin dugula bizi hau edo bestea erosi gabe, baina arazoa ez da hori, behar dugunaren eta bestearen arteko muga ezartzen ez dakigula baizik. Publizitatea dela, gure inguruko maila berdinerira iristea dela, hainbat buruhauste sortzen zaizkigu, gure bizitzako helburuak lortzea zailagoa gertatzen zaigularik. Sarritan gure ahalbideen gainetik bizi gara, beharbada zorrei ere koipea eginez.

Gure ametsak eta nahiak finantzar errealitatearen menpe daude, hau edo beste hori lortzearen gure etorkizuna hipotekatuz. Konturatu gabe E. Frommek deskribatzen duen "El hombre enajenado" delako gizabanako bihurtzen gara. Izan ere, atsegin ditugun gauzak standartzatuak daude, ikusi baino besterik ez dago nola aldatu ditugun lehen kaleetan ikusten ziren trantsistoreak telefono mobilez...

Aro industrialak esperantza handia ekarri zion jendeari, teknologia berriak mundua menperatuko zuela eta denen aberastasuna eta askatasuna lortuko genuela pentsatuz. Errealitatea, ordea,

oso ezberdina izan da: gizabanakoa munduko makina burokratikoaren engranaia bihurtu da. Gainera, gizarte industrialak natura mesprezatzen du bai eta makinek eginda ez dagoen beste edozer ere.



Gaur eguneko erlijioa kontsumismoa da, eta gero eta ugariagoak diren erostetxe handiak katedraltzat hartu ditugu. Gure atsedean egunetan, eta eguraldi txarra egiten duenean batez ere, denborapasarako aukera irtenbide ezin hobea izaten da, eta hara eta hona joaten gara bata ikutuz, bestea erosiz...

"Kultura" deituriko horiek familiaren esparrura lekualdatzen ditugu maiz eta gure seme-alabak kate berdinean sartzen ditugu nahitaez.

Gure haurrei helarazten diegun mezua okerra da, norbait izateko gauzen jabe izan behar dela, alegia, ezer ez duena ez dela inoiz ezer izango. Hala eta guztiz ere, badaukagu oraindik irtenbide bat, eta soluzioa gure gazteriarren heziketan datza. Gazteak baloreetan hezitzen saiatu behar dugu ez daitezen kontrako baloreen menpe jausi. Argi dago IZATEA eta EDUKITZEA bereizten baditugu lortuko dugula etorkizuneko gizaki berria.

**Nekane Aranburu**

*Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak, Foru  
Aldundiak eta  
Elgoibarko Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria*



Aste honetako kekak aparkalekuei buruzkoa dira:

- Bat, tren geltokia eta S. Rokeko zubiaren artean dagoen aparkalekuari lotua dago. Zubiaren barrenean eskuin aldean dagoen aparkaleku irteera ez omen du jendeak errespetatzen eta autoak atera ezinik ibiltzen omen dira. Marra horiak margotuta daude baina jendeak ez ditu errespetatzen.

- Bigarrena, Mintxetako aparkalekuari buruzkoa da. Autobusentzako aparkalekuak autobusentzat direla gogorarazi nahi du irakurle batek. Autoak lagaz gero autobusek beste nonbaiten laga behar dute eta demaseko arazoak sortzen omen dira.

Emakume batek Gurean Bai Hitzarmena bultzatu eta babestu dutenak txalotu nahi ditu, eta batez ere Hitzarmena sinatu duten 51 entitateak, benetan erabaki edo konpromezu garrantzitsua iruditzen baitzaio.

Bestetik, Ikastolako 5. mailako haurrek Santa Ageda egunean kantari atera ziren guztiak txalotu nahi dituzte ohitura zaharrak gordetzearen alde egiten duten lanagatik.

## Nora garamatza Garaikoetxea jaunak?

**L**ehengoan Garaikotxea Jaunak Senatu Batzarreko ordezkaritza lortzeko hitzarmen bat sinatu zuen berria zabaldu zen. EA, Kataluniako Esquerra Republicana eta Galiziako Esquerra Nazionalistak sinatu zuten.

Ez querra Republicana alde batetik, ezker muturreraino doa eta bestetik, COPE irratiko laguntzaile da. Esquerra Republicana, HBrena bezala, utopia hutsean murgiltzen da. Intsumisioa, burujabetza, Espainiako gobernuari zergasaririk ez ordaintzea, haur galtzearen iritzikoa etab.

Eta Galiziakoek are ezker muturreragokoek, bazuten arrazoia noski. Baina arrantza gatazkan, "Jarraikoek lagun zituztelarik, herrietako kaleetan egundoko kalteak egin omen zituzten."

Ez naiz ari hauteskunde hedakundeetan. Euskal Herria maite dudalako kezkatzen naiz. Zer irabazi du gure herriak, Garaikoetxeak aitaren etxera ez zela gehiago itzuliko esan zuen geroztik? "Zatikatu eta irabaziko duzu" dion esaera zein ederki bete duzuen!

**Juan Martin Etxeberria**

## Irakurle!

Atal hau zure eskutitzen zain dago. Eskutitzek gehienez 20 lerroko luzera izango dute eta izen abizena eta NANA beharko dute izan. Argitaratzerakoan, igorleak hala eskatuz gero, inizialak bakarrik ager daitezke. Zuen eskutitzen zain gaude!

## HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK







**A**ste honetako erretratua Igor Arriolak lagatakoa da. 1964an ateratakoa da eta begibistan dago zer den bertan azaltzen dena.

31 urte dira erretratua atera zela. 31 urtean denok aldatu gara, bai gizon-ema-kumeak eta bai herria bera ere.

Non daude San Rokeko etxeak? Eta Institutua? Eta frontoiaren atze aldean zegoen komuna noiz kendu zuten? Eta... ?

Nagusiok urteetan atzera egiteko eta gazteok lehengo Elgoibar ezagutzeko argitaratu dugu gaurko erretratu hau. Ikusi eta gozatu.



*Urtarrilaren 30ean, 28 urte zituela hil zen AMAIA VIÑARAS URAINen sendiak bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



# Animaliak familia giroan

**Sari entzun izan dugu txakurra gizakiaren lagunik onena dela. Batzuk baieztapen horrekin bat etorriko dira eta beste batzuei, aldiz, astakeria bat irudituko zaie. Era batera edo bestera, asko eta asko dira txakurrak ezezik bestelako animaliak ere etxean izatea gustuko dutenak. Arrainik edo txoririk etxe gehienetan egon izan da noizbait, batez ere haurrak hala eskatu izan dutenean. Katuak ere han hemenka aurki daitezke eta, non edo non, baita bestelako animalia bitxirik ere. Esate baterako, badakigu, jakin, iguana eta antzekorik ere baduela jendeak Elgoibarren. Zer izango ote da animaliek ematen dutena?**



mezedoran etzaten da, lo". Bearen hitzetan, "lau urte ditzun ume bat bezelakua da eta holaxe tratatzeiot nik". Kapritxo handiko txakurra ez da Txuri, "gehixen okelia gustatzen iako, edoizen ordutan jango leuke". Estantzian, "bi hilian behin edo pelu-ara eramaten dot". Han erosten txakurrarentzat arropak ere, kitx ez dala hola baina ilia dakanian hotza pasatzen dabarditzen jata eta horregatik jazten dot". Gauza asko eman dizkio Beari, "etxera ailegau eta txakurraren dizun harrerria ez daukaten. Haren saltuak eta gogozten dau". Apirilaren 15an, egiteko Txuriren urteko gehixo ipintzen

tropikal inguru honetan Alberto Salan, arrainontzi batzuk beste bat sukaldean, txikiagoa da. Bertan hazi nahi ditugu". Polita

deitzen da Beatriz  
sterretxearen txakurra.


koloretsu bat salan, "askotan, telebista ikusi beharrean, arrainei begira geratzen zara. Bitxia da ikustea nola arrainak euren artean haserretzen diren, bata bestearen atzetik hasten diren...". Guztien artean bada bat besteak baino askoz txikiagoa dena, "zigortuta dago bertan, isolatua. Hain txikia izanda ere, gainontzeko guztiak zirikatzeaz gain, hainka egiten die hil arte. Utziz gero, arrainik gabe geratuko gara!". Zarau-tzen erosten dituzte arrainak eta Rosik, amak, esan digunez, "arrainontzi hauetan ura aldatu beharrik ere ez dago, temperatura mantendu eta kitto. Hori bai, zaindu egin behar da janari kantitatea. Arrainek ez dute mugarik eta botatzen zaien guztia jaten dute, lehertu arte". Badago arrain bat, beltza, "goroldioa jateko dagoena eta beste batek, gainontzeko arrainek egiten duten kaka jaten du". Txori bat ere badute eta Albertori txakur bat izatea gustatuko litzaioke, "baina etxean ez didate uzten".

## Katu pertsiar bat

Katu pertsiar bat du Egoitz Morak etxean, "11 hilabete ditu eta Persi izena dauka". Zuria da eta begiak horiak ditu, "gaur egun familiako partaide bat gehiago da". Etxean bere txokoa dauka Persik, "lo egin eta bere beharrak egiteko". Pertsiarrek etxean egoteko katuak dira, "Toki batean eta jende konkretu baten artean ohitzen dira eta hor egoten gustura". Katuekin gehiegi fidatu behar ez dela esaten omen da halere, azaldu digunez, "esamesak dira. Egia da kaleko katuak basatiagoak direla baina pertsiarrek oso baketsuak dira". Egoitz, gurasoak, arrea eta Persik osatzen dute familia, "mimatuenak katu dago". Etxean animalia bat iza-

Persi katu pertsiarra da, zuria eta begi horiak ditu.

Eskuineko argazkian, berriz, Gorka daukagu bere iguanarekin.




tea berezia da, “guk katua- rekin jolastu egiten dugu, barre, pena sentiarazi digu... Eta berak gu errespetatzen gaituen bezala, guk ere errespetatzen dugu”. Dortoka bat ere dute etxean, “hura estimatzen badugu, imajinatu katuaren kasuan, askoz animalia biziagoa da”.

Bilbon izan ziren urtarrilean katuaren erakusketa lehiaketa batean, “ehundaka katu ezberdin zeuden. Arrazakoa dela egiaztatzen duen zertifikatua lortu nahi genuen gero pedigria eskatzeko. Animalien zuhaitz genealogikoa da pedigria”. Gainera, esan digutenez, “makina bat emazte- gai egin zituen Persik Bilbon”.

### Iguana

Umetan lagartijak hartzen ibiltzen zen. Gero, Marokkon izan zen oporretan. Bertan kamaleoi bat ikusi zuen eta ikaragarri gustatu zitzaion. Orain dela gutxi eskuratu zuen Gorka Senosiainek iguana bat, “amonak erregalatu zidan”. Kolore berde berdea dauka eta hiru hilabete baino ez ditu oraindik baina metro t’erdi izatera iristen da, “danetik ematen diot jateko, okela piskat, letxuga, gazta...”. Logelan, bitrina antzeko batean gordeta dauka, “foko moduko batekin, berak eguzkixa dala pentsatzen dau”. Gorkari konpainia egiten



omen dio iguanak, “jolas bat da neretzat. Askotan ateratzen dot kanpora eta lurrian botata ibiltzen gera jolasian”. Hamar urte inguruko bizi itxaropena duen animalia honek ezagutzen du, dagoeneko, Gorka, “askotan, berakin jolasian nabilela, beste pertsona bat etortzen bada, sustau edo eitxen da”. Arrebak arrainak ditu arrainontzi handi batetan eta ahal izanez gero, Gorkaren ilusioa txakur bat izatea litzateke, “baina ez diate lagatzen, lan asko ematen dau eta”.



1996-11-9

# TXAKURRAK ETXEAN Sineskeria faltsuak baztertuz

**G**aurko honetan gure artean txakurrei buruz ditugun sineskeriei buruz hitz egingo dugu, lehen bait lehen baztertzea eta argitzea komenigarri iruditzen zaizkigunak.

Beste batzuen artean honako hauek aipatuko genituzke:

1- Murmua (Mokilloa). "Mingain azpiko arra da eta kenduz gero gaixotasuna ekiditen da." (GEZURRA)

Murmua birus batek eragindako gaixotasun larria da. Senda ezina dela esan daiteke, nerbio-sisteman eragiten duen kalte larriagatik. Aipatutako mingain azpiko "ar" hori, mihigalgatxoa da, eta kentzen badugu, mihiaren mugimendua oztopatuko dugu, besterik ez!!

2- "Txakurrek zenbat eta hezur gehiago jan, hobe." (GEZURRA)

Edozein motatako hezurrek (luzeak zein laburrak) txakurraren osasunari arazo larriak eragin diezazkiokete. Beraz, ahalik eta hezur gutxien eman txakurrei. Digeritze-

ko gogorak dira eta elikagai bezala oso eskasak.

3- "Esneak zizareak sortarazten ditu." (GEZURRA)


Denok dakigu txakurkume gehienek zizareak izaten dituztela. Baina ez dakiguna da zizare hauek txakurkumeek amarengandik jasotzen dituzten jaio aurretik (plazentatik) ala bestela, jaio berritan amaren esnetik edo inguruko zizare arraultzak jatetik; baina sekula ere ez guk ematen diegun esnetik.

4- "Behi esnea elikagai ona da txakurarentzat." (GEZURRA)

Animalia klase bakoitzaren esneak propietate eta konposizio ezberdinak ditu, eta bereziki behi esneak; izan ere txakurrarenaren laktosa bikoitza du. Honek sarritan arazo digestiboak eta txakurraren hazkuntzan eragozpenak sortzen ditu. Beraz, txakurkume bat badaukagu, txakur esne maternizatua emango diogu soilik.

5- "Amorruaren aurkako txertaketa txarra da txakurraren usaimenerako." (GEZURRA)

Amorruaren aurkako txertaketak ez du inolako eragozpenik usaimenarengan (noski, gauza guztiak bezala, ondo ematen bada). Gure eguneroko esperientziak horrela dela frogatzen digu.



GUILLERMO TORRES  
ALBAITEA

**KAROBI  
PUB**

ELGOIBAR

Tel. 74 06 37  
San Frantzisko, 37

*Euskara ikastaroak*

Plaza Txikia ☎ 74 13 32

**Matrikula zabalik!** Izena eman **aek** n!

DEBA KALEA 12  
TEL.: 74 42 23  
20870 ELGOIBAR

**ERREFORMAK**  
**FATXADAK ETA TEILATUAK**  
**OBRAK OROKORREAN**

## Izan al duzu inoiz animaliarik etxean?



**JON LUIS JIMENEZ**  
19 urte, ikaslea

Jilgero bat eta arrainak. Txakurrik eta halakorik ez zaizkit etxerako gustatzen. Txikitan hamster bat izan nuen baina kendu egin genuen amak nekatuta bukatu zuelako.



**AMAIA MARTIN**  
23 urte, administraria

Ez daukat. Asko gustatzen jataz, txakurrak batez ere, baina etxian ez dot nahi eukitzia, zikinak dia etxian eukitzeko. Basarri batian hobeto.



**ESTIBALIZ MORENO**  
7 urte, ikaslea

Ez, amatxori ez jako gustatzen. Neri bai, txakurra eta katua gustatzen jataz eta neregatik balitz erosi-ko nuke bat, ez haundixa ez txikixa.



**KARMEN IRIONDO**  
36 urte, administraria

Lehen katu bat euki gendun eta oin txori bat. Bixak erregalatuak diaz, ez da nere aukeria izan, baina katuak gustatzen jataz. Txorixak, berriz, zikinauk iruditzen jataz.



**PEDRO ANSUATEGI**  
68 urte, jubilatua

Katuak, txakurrak, behixak,... animalia asko daukaguz, baserrian bizi gera eta. Konpainia edo ematen dabe baina habitaziñorako ez dot nahi nik animalixarik.



**KOLDO SORALUZE**  
12 urte, ikaslea

Ez, lehen txakurra zaka-gun baina etxian ez, txabola batian. Nik etxian ez nuke eukiko animalixarik, garbitxu ein bihar eta... lana ematen dabe.

Pedro Muguruza 5  
Tel 74 08 06  
20870 ELGOIBAR

**ASESORIA  
GO/AR**

**AHOLKULARITZA**

- KONTABILITATEA
- AHOLKULARITZA FISKALA
- LAN AHOLKULARITZA
- ALLIANZ ERCOS ASEGURUAU
- MULTINACIONAL ASEGURADORA ASEGURUAU

San Bartolome 1. Tel:74 26 74/02 34 Fax:74 21 29 ELGOIBAR

## ■ Anbulategiaren oharra

Ihauterietan, hilaren 20an, asteartea, Osasun Zentruak ez du ohiko kontsulta zerbitzurik eskainiko. Hortaz, larrialdi eta botikin zerbitzuak bakarrik egongo dira, larunbata izango balitz bezala. Beraz, hilaren 19an eskatutako txandak asteazkenerako emango dira, hilak 21.

## ■ AEkren zozketa

AEkren aldeko errifan 66.661 zenbakia izan da saritua eta berau donostiar batek erosi zuen. AEKk errifak erosi dituzten guztiei eskerrak luzatu nahi dizkie.


## ■ Musika Bandaren kontzertua igandean

Udal Musika Bandak ohiko kontzertua emango du igandean, hilak 11, Herriko Antzokian eguerdiko 12,30etatik aurrera. Lehenentxoago, goiz partean, herriko dultzaineroak kalejiran arituko dira Diana joaz.

Jose Antonio Osorok zuzenduta bost pieza ezberdin joko dituzte: "Las provincias" pasodoblea (V.A. Terol), "Pompa y circunstancias nº1" (E. Elgard), "Torre del Oro" preludeo sinfonikoa (G. Gimenez), "Un día en Viena" obertura (F. Von Suppé) eta "Happy Sound Selection nº1 (Cees Vlak). Ohi denez, pieza bakoitza jo aurretik sarrera modukoa egingo die Txomin Mujika zuzendariordeak.

## ■ Elgoibartarrak ETBko Hitzaro saioan

Datorren asteko larunbatean, hilak 17, ETBko lehen katean emititzen den Hitzaro programan elgoibartarrak agertuko dira eleaniztasunari buruzko saioan. Bi elgoibartarrekin ezkondu eta bertan bizi diren flamendar-elgoibartar familiak izango dira saioaren protagonistak. Saioa ETB1-ean izaten da larunbatetan, eguerdiko 2,30etan.



**Ate irekien eguna** ospatuko dute Herri Eskolan hil honen 10ean, laurunbata. Ikastetxearen funtzionamendua erakustea da egun honen helburua. Ikasleentzako jolasak, bazkaria, tailerrak, bideo emanaldiak, txokolatada, argazki erakusketa etab. izango dituzte egunean zehar. Eskolaurreko eraikina eguerdiko 12etatik 1era eta 5etatik 6etara egongo da irekita. Herri Eskolako gelak (informatika gela, hizkuntz laborategia, psikomotrizitate gela...) ikusteko bi ikustaldi antolatatu dira, bata eguerdiko 12etan eta arratsaldeko 5etan bestea.

## HBk Udal aurrekontuen aurka botatuko du hilaren 23ko plenoan

HBk otsailaren 9tik 23ra atzeratu den plenoan eztabaidatuko diren udal aurrekontuen osotasunaren aurka emendakina aurkeztuko du. Pello Mendizabal eta Juan Carlos Marcosek prentsaurrekoan adierazi zutenenez, "PNVk egindako aurrekontuak dira hauek, batzordeetan ez da hitz egin eta ez dugu diru partidei buruzko informaziorik. Musika eta Dantza Fundazioari 9 milioi gehiago emango zaizkio baina kultura batzordekoek ez dakite zergatik. Mankomunitateari 77 milioi ematen zaizkio, Debegesari 11, DEBEMEN 35, erakunde hauei zergatik eta zertarako ematen zaien diru hau ez dakigu".

Gipuzkoan batzen diren 280 mila milioien banaketan, Finantziario Fondoetatik Udalei ematen zaien 30 mila milioiak gehitzea proposatu zuen HBk, "hartara Elgoibartari tokatzen zaizkion 514 milioiak

670 izango lirateke eta herritarrek presio fiskal txikiagoa izango lukete". 1996ean 428 milioi batuko ditu Udalak zerga zuzenen bidez, duela hiru urte baino 100 milioi gehiago.

Ikastetxeen atalean, Ikastola (6 milioi) eta Pilar (3,5 milioi) ikastetxeari ematen zaien laguntza, "Pilar ikastetxeari ez eman eta Herri Eskola eta Ikastolaren artean banatzearen alde gaude, Pilarra pribatuen alde gaude, Pilarra pribatuen alde gaude, Pilarra pribatuen alde gaude". Azkenik, Gazte Asanbladaren idatziak erantzuna ez jasotzea "Belen Elorzak jasaten dituen presioen ondorioa dela" uste du Marcos-ek. Hortaz, aurrekontuaren zati bat gazteentzako lokal bat erosteko izatea eskatu zuten HBko bi kideek. Ongizate sailean, "herrikoak diren Kalamua garbitzaile Kooperatibakoei lanik ez emateko borondatea eta PNVren inguruko den Elurra enpresari lana ematen zaiola salatu nahi dugu".

## Santa Agedako koruak



Larunbat goizean herriko kaleak zeharkatu zituen Etxegiñak sortutako koruak.



96 baserri koplatu zituen Elgoibarko Izarrak antolatutako Santa Eskeak.



Ikastolakoek ere Santa Agedari omenalditxoak egin nahi izan zioten hilaren 5ean.

Santa Agedaren omenezko hiru koru ezberdin izan ditugu aurten ere kalez kale eta auzorik auzo. Larunbatean, igandean bai eta astelehenean ere, herriko kale eta auzoetako baserrietan koplaka eta kantari aritu ziren Santa Agedaren omenezko koruak.




Larunbatean Etxegiñak sortutako koruan ia 50 lagun elkartu ziren. Kalez kale eguerdira arte ibili ziren, eskean eta kantuan. Bazkaria Baltasar soziedadean egin zuten eta Abdon Baskaran panderojolea eta 50 urtetan koruetan kantari ibili den Inazio Arrese omendu zituzten. Bildutako dirua herriko behartsuen artean banatzeko izaten.

Igandean egun osoz jardun zuten Elgoibarko Izarrako Santa Eskekoek Elgoibarko auzo guztietan koplaka. Goizean 12 gaztetxoz osatutako taldeak San Lorentzo koplatu zuen eta bati baino gehiagori malkoak begietatik ihesarazi zien. Beste bi taldek, nagusienak hauek, Arriaga batetik eta Urruzuno eta San Roke bestetik pasa zituzten. Arratsaldean, San Migel auzoan eta San Pedron ibili ziren 12ko bina talde. Guztira 36 bat lagunek 96 baserri koplatu zituzten.

Azkenik, astelehen arratsaldean, Santa Ageda Egunean, Ikastolako neska-mutilak antzinako tobera euskal musika tresnak lagunduta, kalejira egin zuten herrian zehar.

Eskean ibili zirenek eskerak luzatu nahi dizkiete beraien etxeetan hartu eta diruz lagundu zuten herritar eta baserritar guztiei.

# Gida komertziala



**BARREN**ek ATERATAKO *G*IDA KOMERTZIALA 1996 LIBURUSKAN  
OKER AZALDUTAKO TELEFONO ETA ZUZENBIDEEN KONPONKETA

## **B**ULEGO MATERIALA ☎

Classy. San Frantzisko, 56....74 02 40

## **T**AXIAK ☎

Fernando Moreno.....(908) 77 12 02

Jose Luis Bollar.....(908) 57 04 65

## **K**ASTETXEAK ☎

Batxilergo Institutoa.

San Roke, z/g.....74 02 67

Lanbide Heziketarako Institutua.

Arregitorre, 2 .....74 44 80



Roberto Martin:

## “Nataliaren diskoko portada erretratatu nuke”

48 urte dituen gizon honek denbora librea pasatzeko era asko eta ezberdinak ditu. Zaletasunen artean bi azpimarragarriak argazkilaritza eta futbitoa. Izan ere, futbito txapelketako

sortzaileen artean egon eta gero, 15 urtez aritu zen arbitro. Argazki arloan, berriz, Ongarriko kide izan da, lehiaketa bat edo beste irabazi izan du eta ehundaka bodatako erreportaiak ere egin izan ditu.

- Nola sartu zinen futbito txapelketan?

- Pilar ikastetxean hasi zen guztia Coca-Colaren gerentea zenak eta Astigarraga kirolendakoen artean sortu zuten. Urtebete egin eta utzi egin zuten. Hurrengo urtean guk hartu genuen eta ni 15 urtez egon nintzen.

- Arbitro?

- Bai, arbitro ere bai, ze atzetik beste lan asko zegoen antolakuntzan. Ostantzean, larunbat eta igandeetan izaten ziren partiduak eta askotan eguneko hiru partidu ere arbitratu beharra izan nuen.


- Baina gustura.

- Bai, oso gustura. Gero, joko eskolarrak zirela-eta Urasandiko kanpoan beraiek zuten lehenetasuna eta gure partiduak astegunetan izatera pasatu ziren. Gehiegizkoa zen, lana, partiduak...

- Askotatik behar izan al zenuen arbitro zeundenean?

- Askotatik denetarik. Behin, galtzen zihuan ekipo bateko jokalariren baten aitak garagardo lata bat bota zidan. Jendeak ez dauka errespeturik. Are gehiago, jendeak ez du araudia ezagutzen, ez ikusleek eta askotan ezta jokalariek ere.

- Arbitro izateko lehena-go jokalaria izan behar,



“Arbitroarekin sartzea da errazena baina askotan jokalariek ere ez dute araudia ezagutzen”

ez?

- Nire kasuan bai. Gu izan ginen lehenengoak plaiaroketako txapelketetan parte hartzen, Zumaia eta Deban ibili ginen. Ostantzean, Elgoibarren eta Kiliomonen ere jokatu izan nuen. Gero, arbitro ikastaroa egin eta horretan aritu nintzen.

- Arbitro ona al zinen?

- Arbitro ona izateko batetik araudia ondo jakin beharra dago eta bestetik, pertsonalitatea eduki behar da. Hau da, gauzak esan behar direnean esan, ziur egon hartzen duzun eraba-

kiaz eta edozer entzunda ere dena onartzeko prest egon.

- Futbol partiduak ikustera joaten al zara?

- Aspertu egiten naute partidu handiek. Nahiago dut areto futbola, askoz arinagoa da, azkarragoa, joko gehiago dago... Bizia da eta gehiago disfrutatzen dut.

- Zein da zure ekipoa?

- Athletic-a.

- Gaia aldatuz, argazkizalea ere ba omen zara.

- Bai, hala da. Soldaduzka egiten nengoenean erosi nuen lehen kamara

eta gustatu egin zitzaidan. Gero, “a distancia” deitzen diren ikastaro horietako bat egin nuen eta errebelazio prozesu guztia ikasi nuenengantxatu nintzen.

- Non errebelatzen zenuen?

- Etxeko guztiak ohera joaten zirenean, sukaldean argi gorria ipini eta han moldatzen nuen laborategia.

- Kamararen mutila ere deitzen zintuzten, ez?

- Bai. Garai batean beti ibiltzen nintzen argazki kamara sorbaldan hartuta eta gaitzitzen hori egokitu zidaten.

- Oraindik ere?

- Gaur egun ez naiz horrenbeste ibiltzen baina zaletasunak hor dirau.

- Zer gustatzen zaizu isladatzea?

- Denetik baina batez ere pertsonak ateratzea gustatzen zait.

- Eta zerk egiten du argazki bat ona?

- Orokortasun batek, argiak, enfokeak eta, nola ez, pertsonen kasuetan baita naturaltasunak ere.

- Zeri atera nahi zenioke argazki bat?

- Nataliaren lehen diskoko portada atera nahi nuke. Askotatik gustatzen zait nola abesten duen eta gogor ari da lanean nahi duena lortzearen.

## Xabier Aranbarri

### Aranbarri gruak



- **Zenbat langile zarete?**
- ▶ Bat, ni bakarrik bainabil.
- **Zenbat ordu egiten dituzu lan?**
- ▶ Ez daukat ordutegi finkorik.
- **Gruarekin altzatu duzun pisurik handiena?**
- ▶ 2.000 kg. tope, baimendutakoa hori dalako.
- **Eta eskuekin?** ▶ 100 kg. inguru.
- **Egin duzun lanik zailena?**
- ▶ Ez dakit, batzuk egin ditut.
- **Zenbat pisatzen duzu?** ▶ 95 kg.
- **Motorrak ala autoak?**
- ▶ Bixak gustatzen jataz.
- **Zer gustatuko litzaizuke gruarekin altzatzea?**
- ▶ Altzatu daitekeen edozer gauza.
- **Eta zer ez?** ▶ Gruak altzatu ezin dezakeena.
- **Bertigorik?**
- ▶ Batzuetan bai, arrarua dan arren, lekuaren arabera eukitzen dot.
- **Gaua ala eguna?**
- ▶ Bixak, egin behar dudaren arabera.
- **Nora joango zinateke oportetara?** ▶ Estatu Batuetara.
- **Egin duzun bidaiarik luzeena?** ▶ Portugal aldera.
- **Eduki ahal izatekotan, “zure pisua...” zertan?** ▶ Urretan.
- **Lanbide hau izango ez bazenu, zein?**
- ▶ Lehenago ibili nitzan bezela, tailerrian lan eitzen.
- **Dantza soltean ala bikotearekin?**
- ▶ Soltean.
- **Elgoibarko lekurik aldrebesena?**
- ▶ Hainbeste daude ez dakidala zein esan.
- **Zer eskatu diozu aurtengo urteari?**
- ▶ Lana.
- **Zertaz mozorrotuko zara ihauterietan?**
- ▶ Ezertaz ez, beharbada kanpora joango naiz.
- **Nora gustatuko litzaizuke heltzea?**
- ▶ Lan asko izatia eta enpresa fuerte bat izatia gustauko litzaidake.

MAITE IRIONDO

## INTSUMISIOA

### DOINUA:


Mutil kokkor bat

Pare bat bertso egiteari orain behar diot ekin, gaia izan leike dispertsioa edo intsumisioa berdin. Bigarrendoa hautatuko dut zuek dezazuten jakin: Txengo laguna espainiarrek epaitu dutela egin; zergatik eta soldaduzkari egin diolako muzin.

Intsumisio mugida honetan denok behar dugu batu, Txengok bezala intsumisio bidea denok hautatu. Pertsona baten kontzientzia ezin delako epaitu. Azken azkenik nik bertso hauei gauz bat nahi nieke gehitu: ordua da ta; Lutxi askatu, INTSUMISOAK ASKATU!!



JON GARATE



**KEMEN**  Belardenda

**MEDIKU NATURISTA-AKUPUNTURA-PISUAREN  
ZAINKETARAKO TERAPIA-MASAJEA ETA  
REFLEXOTERAPIA**

San Bartolome 25. Tel: 74 40 31

**OIERKI** IGONGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segiduan konponduko dizugu igongailua

☎ (943) 11 35 15 ● ☎ ABERIAK (943) 11 35 15  
Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR

## Hainbat obra egin dira Sigman

Ez da hilabete asko Sigmako auzoan hainbat aldaketa izan direla Udalaren eskutik. Besteak beste, Aitzbizkar-era arteko errepidea konpondu da, frontoia eraberritu eta iturri berri bat ere jarri da.



Bidea asfaltatu, iturria jarri eta frontoia konpondu dute.

**E**san bezala, duela hilabete batzuetatik hona hainbat obra gauzatu dira Sigman. Elgoibarkoa izanik ere, aparte samar gera-tzen den auzoa denaren, badituzte hainbat aukera ezberdin. BARRENen bertan eman genuen bertan gazteek duten lokalaren berri. Gaurkoan, berriz, bestelako aldaketez ari-tuko gara.

Esate baterako, Sigmatic Maltzagara bitarteko bidea konpondu behar zela aprobetxatuz, Sigmako autobus geltokitik Aitzbizkar baserri- ra bitarteko errepidea ere konpontzea erabaki zen, beharra aspalditik zuen eta. Horrela bada, erabaki eta egin ere egin zen. Orain, ibilbide horretan argia jartzekotan dira.

### Frontoia

Frontoia ere ederra dute Sigmakoek. Halere,

auzotarrak kexu ziren lurra nahiko gaizki zegoela eta mejora bat behar zuela esanaz. Izan ere, pilota partidu bat jokatzen zuten bakoitzean, lurraren irregulartasuna zela-eta pilotak ez zuen ondo botatzen. Hori dela eta, beharrezko konponketak egin ziren eta frontoiko lurra leundu egin zen. Hemen ere argia jarri zuen Udalak egunez ezezik gauzez ere aukera egon zedin bertan jokatzeko.

### Iturria

Frontoia ingurua plaza antzekoa da Sigmakoentzat. Bertan ibiltzen dira zahar eta gazteak, bai eta umeak ere, pasiaran edo jolasean. Horrek bultzatuta eta iturri batek dakarren mesedea kontuan izanik, frontoia ondoan bertan iturri bat jarri zen, argazkian ikus daitekeena.

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartean

## BEGIRALE ZUZENDARIA behar da



*Atraxiamai*ka Begirale Taldeko zuzendari lanak betetzeko.

**ESKATZEN DA**

- Begirale zuzendari titulua

**ESKAINTZEN DA**

- Urtebeterako egun erdiko lana

**Curriculum-ak bidaltzeko azken eguna: Otsailaren 17a**  
Elgoibarko Izarra K. E. Ubitarte 4 behe. (Tel. 74 16 26)

## Karkizano Etxea (II)

- Ezenarro ikerleak, etxe honetako genealogiari buruz esaten duenez, XVI. mendera arte ezin da familiaren jarraipenik egin.
- 1406an Rodrigo Gonzalez Karkizano eta 1440an Martin Iñiguez (Elkanoren espediziokoa ez, beste bat) ageri dira Karkizanoko goiko etxeke jabe. Azken honen ondorengoa Gonzalo Martinez eta Rodrigo Karkizano izan omen ziren.
- Halere, etxe honetako semerik ospetsuena Martin Iñiguez Karkizano izan zen. Martin Loaysak Moluka irletara antolatutako espedizioan hartu zuen parte bere iloba Martin Gartziaekin batera.
- Martin Iñiguez Karkizano espedizioburu izatera iritsi zen. Lehenengo burua Loaysa bera

izan zen, bigarrena Elkano getariarra eta Salazar hil ondoren Iñiguez Karkizano bera.

- Elgoibartarra ez zen herrira itzuli 1527ko uztailaren 11n Tidor irlan hil baitzen.
- Hil eta gero, ondorengoa bere semea izan zen, Karkizanoko Rodrigo, hain zuzen. Berak kudeatu zuen familiaren ondarea eta aita bezala, "Indietan" hil zen.
- Ezkongabea eta ondorengorik gabekoa zenez, XVI. mendean erdi aldera etxeke jabetza Elgoibarko Arriolarren esku geratu zen eta XVII. mendean Azkoitiko Idiakeztarrena izatera pasa zen. Azken hauek XIX. mendera arte iraun zuten.

PELLO ARRIETA



## J. Jose San Martin "Aldai" (1944-1992)



- Donostiako "Santa Teresa" base-rrian jaioa 44ko uztailaren 21ean.
- Gaztetatik zituen gustuko futbola eta esku pilota. Zaletasun horiek bultzatuta C.D. Elgoibarko jokalaria izatera heldu zen eta herrien artean egiten ziren pilota txapelketa askotan hartu zuen parte.
- 1970ean ezkondu eta alaba bat izan zuen.
- Pertsona alaia eta bizi-pozez beterikoa. Oso ezaguna zen herrian. Bere anaia Ramoni bezala "Aldai" deitzen zion jende guztiak, aitaren baserriko izena jasotzen dutelarik.
- C.D. Elgoibarko presidenteorde izan zen, beti bizi izan baitzuen futbola oso gertutik.
- Gure-Bide elkarteko bazkide eta bertako presidente ere izan zen.
- Palan jokatzeko oso gogoko zuen. Herriko hainbat txapelketatan hartu zuen parte, baita batzuk irabazi ere.
- Erreminta makinaren sektoreko Elgoibarko zenbait enpresatan egin zuen lan.
- 1992an hil zen, otsailaren 17an, 47 urterekin.

*Familiakoren bat edo lagunen bat hiltzen bazaizu BARRENEk sentimenduan lagundu eta eskelak, urteurrenak edo esker onak azaltzeko toki bat eskaintzen dizu.*



## MOTZAK

### Eskolarteko Krosa

Mintxeta Atletismo Taldeak antolatuta, Mintxetako Eskolarteko I. Kros Saria txapelketa burutuko da igandean, hilak 11. Bi kategoria ezberdinetan banatua egongo da txapelketa. Goizeko 11etan hasiko da lehen lasterketa, alebin mailako neskena izango dena. Bi bira emango dituzte, 1.750 metro eginez. Segidan hiru birako ibilbidea, 2.750 m.takoa egingo dute alebin mailako mutilek. 12ak hogei gutxi aldera infantil mailako nesken lasterketa hasiko da; 2.200 m.ko distantzia egingo dute. Eta azkenik, 3.750 m.tako lasterketa infantil mailako mutilek burutu beharko dutena izango da.

### Afizionatuen taldea

Elgoibarko Lagun Taldearen barruan Ciclos Iturriaga izenarekin korritzen duen jubenilen taldeari jarraipena emateko asmoa dute datorren denboraldian. Hortaz, aurtur jubeniletan aritu direnak afizionatuetan segitu ahal izango dute Ciclos Iturriagak patrozinatuta.

### Eskubaloiko seniorrak

Elgoibarko Eskubaloiko taldeko seniorrek mailaz igotzeko berebiziko garrantzia izango duen partidua jokatuko dute larunbatean arratsaldeko Setan. Kiroldegian izango den topaketan Beasaingo ekipoa izango dute aurrez aurre. Beasaindarrak hirugarren doaz sailkapenean eta elgoibartarrak lehen postuan. Partidua irabaziz gero, ia ziurra da elgoibartarrek mailaz igotzea lortuko dutela.



J. Carlos Mancebo:

### "Bizitza osoan karatea egin nahi nuke"


■ **Gerriko beltza duzu karatean.** - Shotokan deitzen den estiloan. Bakoitza ezberdina da, gurea estabiltatea eta potentzian oinarritzen da.

■ **Karatearen irudi hedatuena oso ikusgarria izatearena da.** - Jendeak aspektu hori ezagutzen du pelikuletan ikusitakoagatik batez ere. Karatea ez da adreiluak apurtzea bakarrik, hori beste aspektu bat baino ez da.

■ **Kirolaz gain, bizi filosofia ere ba omen da.** - Bai, egia da. Kontraesankorra iruditu arren arazo psikikoak dituzten pertsonen arte martzialak egiteko gomendatzen diete medikuek. Balore batzuk ematen ditu, pertsona lasaiagoa izaten erakusten dizu... egoera kontrolatzen.

■ **"Defentsarik onena, eraso", ados?** - Defentsarik onena ez erasotzea. Arazo baten aurrean hitz egin behar da, eta zure etsaia hitzez kontentzitu ezin duzunean, indarkeriarekin are gutxiago.

■ **Biolentziarekin parekatzen da karatea.** - Nire ustez ez da biolentzia. Autodefentsa teknika bat da. Borroka baten logika aurkakoa irabaztean datza, baina ni neure burua gainditzen saiatzen naiz. Zure gainetik dagoen baten aurkako borroka batean beti ikasten duzu zerbait baina zure azpitik dagoen baten aurka ez duzu gehiago ikasiko.



■ **Zenbat urte gerriko beltza ateratzeko?** - Bost urte; sakrifizio handiak eginez, entrenamenduak, etab.

■ **Minik hartu al duzu sekula?** - Beti hartzen da kolperen bat. Karatea kontrolean oinarritzen da. Karatea, potentzia, abiadura... maximoarekin mugimendu bat egitea da baina kontraktu fisikorik eduki gabe; kolpea eman gabe. Beti uzten da cm batzuetako distantzia.

■ **Autokontrola, azken finean.** - Bai, horixe da. Karatean gorputza eta burua, dena lantzen da. Nonbaiten irakurri nuen "osasuna ez dago indarrean, orekan baizik". Niretzako gauza orekatu bat da karatea.

■ **Japoniarrekin ikasi duzu.** - Bai. Tejikase bat ikusi nuenean, 70 bat urteko gizon bat, ikaragarria izan zen. Nire irakasleak esaten du urteak pasatuz doazen heinean gero eta indartsuagoa ikusten duela. Ikaragarria da haren abiadura... dena. Karate deportiboan pertsona batek 25 urterekin mailarik altuena lor dezake baina karate tradizionalak bizitza osoa hartzen du. Nik ere bizitza osoan karatea egin nahi nuke.

• Adina: 23  
 • Norekin ikasiko zenuke? Zerbait irakats diezadakeen edonorekin  
 • Bigarren dan-a, noiz? Bi urte itxaron behar ditut  
 • Beste kirolik? Pala

**Baserriko haragietan berezia**

**Harategi Urdaitegia**  
 San Bartolome, 16. ☎ 74 06 40

**ZERAMIKAK**

Erakusketa eta bulegoa:  
 Antonio Arrillaga, 6-8  
 behea  
 83 Postakutxa  
 Tel. 74 33 44 - 74 06 92  
 Fax 74 37 11

Biltegia:  
 Arregitorre, 10 - 14 behea  
 Tel. 74 20 38 - 74 23 71  
**20870 - ELGOIBAR**  
 Gipuzkoa


# Elgoibartarrak, Debako Hondartzako Futbol Txapelketan nagusi

**F**utbol zaletasunak Elgoibartik kanpo antolatzen den futbol txapelketan parte hartzeraz eraman zuen duela bi urte elgoibartar gazte kuadrila bat. C.D. an ibilitako gazte guztiek bertan jarraitzerik ez zuten, kanpoan geratu zirenak talde ezberdinak sortu eta Debako Hondartza Futboleko txapelketan parte hartzea erabaki zuten.

15 eta 18 urte bitarteko gazte osatutako hiru tade, *Lojantzi*, *Pitxulines* eta *Gozo-Toki M. Jose* izenekoak dira Debako Txapelketan parte hartzen dutenak. Ligako txapeldun geratu dira aurten *Lojantzi*koak 7 punturekin, *Pitxulines* hirugarrenak bostekin eta *Gozo-Toki M. Jose* taldekoak, laugarren, puntu bakarrekin. Behin Liga amaituta, Kopako finalerdiak jokatuko dituzte hil honen 18an eta finalak martxoko lehen astean ziurrenez.

### 'Maria gora, maria behera'

Partiduak igandeetan jokatzen dira Debako hondartzan. Goizeko 11etan hasten dira elgoibartarrek jokatzen duten kategoriako partiduak, jubenilen mailakoak. Hondartzan jokatzeak badu itxuraz aparteko emoziorik. Marea behean dagoenean aprobetxatzen dute futboleko aritze-ko, baina horrek badu arriskurik. Txapelketan Lojantzi taldean jokatzen duen Ivanek esan digunez, "jokatzen zaudela marea igo daiteke



MARI JOSE GOZO TOKIA



PITXULINES



LOJANTZI

eta hankak bustita, ur artean jokatutako behar izaten dugu eta ez pentsa, baina oso gogorra da". Eguraldiaren gora-beherak euria edo haizea batzuetan, eta hotz galanta bestetan ekarri izan die baina hala ere, "gustura" aritzen omen dira elgoibartar hauek hondar artean baloiari ostikoka.

Abenduan hasi zen txapelketa martxoan amaituko da. Hiru urte daramatzate elgoibartarrek txapelketan eta datorren urtean utzi egingo omen dute, "Urasandiko Futbito Txapelketan hasteko". Hala ere, elgoibartarrak Deban jokatzearen tradizioa ez da etengo, "C.D.an sartzen ez diren gazteak hasiko baitira seguruenez" esan digu Ivanek.

### Futbola

Lagun Onak 0 - Haundi 2  
Elgoibar 1 - S.D. Eibar 1 (1. erreg.)  
Hamaika Bat 1 - Elgoibar 1 (Jubenilak)  
Hernani 2 - Elgoibar 1 (Kadeteak)  
Elgoibar 8 - La Salle 0 (Infantilak)  
Intxaurdi 1 - Elgoibar 2 (neskak)

### Saskibaloia

Elgoibar 58 - Donostiako Hondartza 55

### Eskubaloia

Hondarribi 30 - Elgoibar 25 (Kad. mutilak)  
Pulpo 14 - Pagoaga Elg. 19 (Kad. neskak)  
Elgoibar 30 - Egia 20 (Jub. mutilak)  
Bergara 10 - Txankakua Elg. 23 (Seniorrak)

### Futbitoa

Uda Berri - Orbela (atzeratua)  
Sanroketarra 5 - Rebel Urbi 2  
Ikus Optika 2 - Aldavas 2  
Kosakos 3 - S. Braga 1  
Roke 12 - Ametsa 1

### Areto futbola

Elgoibar F.S. 3 - Bar Nerea 3 (1. maila)  
Antxeta 2 - Elgoibar 5 (2. maila)

## AGENDA

### Futbola, Mintxetan

#### Larunbata 10

09,30 Eibartarrak - Almen (Jubenilak)  
11,15 Elgoibar - Anaitasuna (Kadeteak)  
13,00 Gazteak - Antoniano (Jubenilak)  
17,00 Haundi - Hernani  
18,45 Elgoibar - Ostadar (Neskak)

#### Igandea 11

13,30 S.D. Eibar Urko - Durango (Jubenilak)  
15,15 S.D. Eibar - Hamaikak Bat (1. erreg.)  
17,00 Elgoibar - Añorga (Jubenilak)  
18,45 Urki A - Bergara

### Areto Futbola

#### Ostirala, 9

22,30 Elgoibar - Cocinas Urarte (2. maila)

### Eskubaloia, Kiroldegian

#### Larunbata, 10

17,00 Elgoibar - Beasain (Seniorrak)


### Futbitoa, Urasandin

#### Igandea 11 (Arbitraia: Orbela)

10,00 S. Pitxote - King Kong  
11,00 Pedruskos - P.S.K.  
Berrogei Duro - Oraiko Disko  
12,00 S. Karapola - Aterpe  
Lucky Lucke - Karkis

# Euskararen erabilerak gorakada motela izan du azken urtean

Udaleko Euskara Batzordeak urtero egiten duen euskararen erabilerari buruzko neurketaren datuak kaleratu berri dira. Kaleko esparruan erabiltzen den euskara da neurtu dena, eta ez leku itxietakoa. Gabonak inguruan egiten da beti azterketa. Bost inkestatzaile kaleko zonalde ezberdinetan txandakatzen dira, jende kopurua zenbatuz eta erabiltzen duten hizkuntza paperean jasoaz. Aurten abenduaren 20a, 21a, 22a, 23a eta 24a izan dira neurketa egiteko aukeratu diren egunak.



Gazteak eta helduak dira euskara gutxien erabiltzen dutenak eta txikiteo giroa eta gazte giroak dira erdaldunenak.

**E**zagutza bai, baina erabilera da datuen arabera Elgoibarrek euskarari zor diona. EKBk eta SIADECOK beren azterketetarako erabiltzen duten metodologia jarraituz, hau da, kale neurketarena, 1995eko datuek euskararen erabilerak gorantz egin

duela adierazten dute. Elgoibartarren %64ak ezagutzen du euskara eta horietatik erdiak bakarrik, %31,9ak erabiltzen du euskara kalean. Aztertutako elgoibartarren kopurua 8.576koa izan da; guztira 11.204 biztanle ditu Elgoibarrek.

Kristina Zuazubiskar Udal

Euskara Teknikariaren hitzetan, “duela bost urtetik honako joera goranzkoa izan da, haurren arteko euskararen erabilerari dagokionean batez ere”. Helduen eta gazteen artean, berriz, “iaztik hona jaitsiera egon da”.

Euskara gehien erabiltzen dutenak edadeko pertsonak eta haurrak dira, azken hauen kasuan igoera oso nabarmena izan delarik azken urteotan. Eskoletan D ereduaren zabalkundeak emaitzak ematen dituen seinale. Helduak dira euskara gutxien erabiltzen dutenak eta hauen atzetik, gazteak daude. Giroari dagokionean, ikas-tetxe irteeretan erabiltzen da euskara gehien, pasiarra eta jolas lekuetan ondoren, senitaratean gero, eta erosketa giroan azkenik. Gazte giroan eta txikiteoan apenas entzuten den euskararik, bi hauek dira girorik erdaldunenak.

<b>EUSKARAREN ERABILPENAREN BILAKAERA</b>					
	1990	1991	1993	1994	1995
Haurrak (0-14 urte)	%25,7	%40,5	%40,9	%47,3	%58,9
Gazteak (15-24 urte)	%16,4	%22	%15,3	%15,3	%25,2
Helduak (25-64 urte)	%14,9	%19	%18,7	%23,3	%23,4
Zaharrak (65-...)	%36,7	%43,8	%44,6	%41,5	%39,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>%20</b>	<b>%25,2</b>	<b>%25,4</b>	<b>%31,8</b>	<b>%31,9</b>

## San Juan Bosco eguneko

**U**rtarrilaren 31n San Juan Bosco eguna da, ertainetako ikasleen patroia. Urteak dira Elgoibarko Institutuan aipatu eguna ospatzen dutela. Halere, egunean bertan beharrean ostiralera pasatzen dute, juega inolako mugarik gabe egiteko lizentzia izanik. Aurten, 1. mailako Zientifiko A gelako ikasleak izan ditugu kolaboratzaile. Beraiei kamara utzi genien eta han aritu ziren, ekintza guztiei argazkiak atera eta atera. Hona hemen emaitza. Laburpen txiki bat egin dugu argazki batzuk aukeratuz. Guztiak ezin atera baina irudietakoak baino askoz ekintza gehiago antolatu ziren: kros txapelketa, mountain Byke lasterketa, tortila txapelketa, bazkaria, bertsolariak... Partaidetza handia izan zen benetan eta giroa ezin hobea. Hurrengo urtean ere, ihauteri jaien bezperan, izango da San Juan Bosco ospatzeko aukerarik. Merezi du eta.



**PILOTA:** Apostu eta guzti, profesionalak bezala izan ziren pilota partiduak. Bikoteak fin aritu ziren eta apostuak barra-barra. Dirutza handirik egiteko aukerarik egon zen ala ez jakiterik ez dugu izan baina saltsan ziur batek baino gehiagok disfrutatuko zuela.

**KUADRILA:** Argazkian ateratzea nahi izan zuen kuadrila honek. Une batez, kiroldegian jokatzen ari ziren partiduak ikusteari utzi eta BARRENEko kamarara begiratu zuten. Aurpegi alaiak non nahi. Arrazoirik bazuten, ez?



**ANTZERKIA:** Aktore izan nahi duenak ostiralean izan zuen aukera bere abileziak adierazteko. Antzerki emankizuna izan zen, ikasleak zirelarik protagonistak. Beraiek prestaturiko gidoia, eurek landutako eskenatokia, arropak, makilaia... Oscarra noizko?



**GOITI-BEHERAK:** Goizean goiz, kros txapelketaren ostean izan ziren goiti-beherak. Euria ari bazuen ere, gustura baino gusturago ibili ziren ikasleak bai partehartzaileak bai eta animatzaileak ere. Bat edo beste despistatu samar ibili zen, norabidea oker hartuz, baina umorerik ez zen falta izan.



# ASTEAN ZEHAR

## 9 OSTIRALA

22,15 ZINEA  
"Goldeneye"

## 10 LARUNBATA

19,30-22,15 ZINEA  
"Goldeneye"

## 11 IGANDEA

11,00 "1. MINTXETA SARIA"  
ESKOLARTEKO KROS  
TXAPELKETA

✓ Mintxetako Atletismo Pistan  
Antolatzailea: Mintxeta Atletismo  
taldea

12,00 BANDAREN KONTZERTUA  
✓ Herriko Antzokian

16,30 ZINEA  
"Una pandilla de pillos"

19,30-22,15 ZINEA  
"Goldeneye"

## 12 ASTELEHENA

22,15 ZINEA  
"Goldeneye"

## 13 ASTEARTEA

22,00 ZINEA  
"Goldeneye"

## 16 OSTIRALA

22,15 ZINEA  
"Pocahontas"

## txandak

### FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
10, larunbata:	Bidasolo	Zabaleta
11, igandea:	Bidasolo	Escala
12, astelehena:	Yudego	Yudego
13, asteartea:	Yudego	Yudego
14, asteazkena:	Yudego	Yudego
15, osteguna:	Yudego	Yudego
16, ostirala:	Ormazabal	Ormazabal

### FARMAZIEN HELBIDEAK:

Zabaleta: Kalebarren 9, Soraluze

Te. 75 13 84 1

Escala: Rekalde 1, Soraluze

Te. 75 16 38

### OKINDEGIA:

11, igandea: BOUTIQUE DEL PAN

## ZineA



Una

### pandilla de pillos

Zuzendaria: Penelope Spheeris  
Antzeleak: Travis Tedford, Bug Hall,  
Brittany Ashton Holmes

Spanky, Alfalfa, Stymie eta beste mutilak klubeko bilera egiteko elkartzen dira. Taldekide izateko beharrezkoa da neskenganako gorrotoa adieraztea. Spanky elkarteko lehendakariak herrian izango den feria eguneko kart lasterketan korritzeko pilotua aukeratuko du. Alfalfa aukeratzeko dute, baina bere bila doazenean Darlari zein maitemindua dagoen deklaratzeko harrapatzen dute.



### Goldeneye

Zuzendaria: Martin Campbell  
Antzezleak: Pierce Brosnan,  
Sean Bean, Izabella Scorupco.

James Bond-ek Goldeneye izeneko proiektuaren atzetik dagoen misterioa deskubritu behar du. Emakume argi eta ederrez inguratua, Riviera frantsesetik Cubara bidaiatuko du, San Petesburgotik pasatuz, bere etsaiari aurrea hartzeko. Puntako teknologia present dago bizi dugun nazioarteko giro politikoaren isla izan nahi duen pelikula honetan.



## Salerosketak

Ford Escort XR3, 16 v., SS AN kotxea saltzen dut.  
☎ 74 34 63 Xabi (gauzez)

Errepideko bizikleta salgai. CONTINI markakoa. Shimano 105 STI Mavic. 100.000 pta. Oso ondo dago.  
☎ 74 26 49

ERREPIDEKO BIZIKLETA salgai. Egoera oso onean eta prezio interesgarria.  
☎ 74 28 56

Haurrentzako Ihauterietako jantziak salgai (Txano gorritxu, Dama antigua eta arabiarra)  
☎ 74 14 69

C 15 FURGONETA erosiko nuke. Gasoila.  
☎ 74 36 34

RETROPROIEKTORE bat eta "Le sana frontieré" frantseseko LIBURUA erosi nahi ditut.  
☎ 74 04 59

## Etxebizitzak

Etxe bat salgai MENDARON. Amueblatua.  
☎ 75 62 62 (gauzez 9-11)

ALTZOLAN BUHARDILA BAT alokatzen dut. Hornituta eta baldintza onean. ☎ 74 37 41

Mendaron ETXEBIZITZA BAT SALGAI. Buztinalde plazan. Amueblatua.  
☎ 77 05 90 Angel Mari

BUHARDILA BAT saltzen da Eibarren. Erreformatua. Prezio interesgarria.  
☎ 10 76 09 Fernan

ETXE BAT SALTZEN DA Errosario kalean.  
☎ 74 37 68

## Garajeak

Lokal bat alokatzen dut Madalan, almagenerako aproposa.  
☎ 74 13 84

Garaje itxi bat ALOKATZEN dut pista beltzean.  
☎ 74 20 09 (gauzez)

Garaje ITXI BAT salgai Santa Ana 46an.  
☎ 58 40 24

Garaje bat ALOKATZEN dut pista beltz azpian. Marraduna eta kotxea garbitzeko aukera.  
☎ 74 01 77

Garaje bat SALDU nahi dut. Marraduna. Pista beltzean. Oso merke.  
☎ 45 49 29

GARAJE BAT SALTZEN dut pista beltz azpian, marraduna.  
☎ 74 39 19

Garaje ITXI BAT SALTZEN da Arregitorren.  
☎ 74 30 81

## Lana

GAIXOAK ZAINTEKO prest dagoen emakume heldu bat naiz. Esperientzia daukat.  
☎ 74 04 86 Victoria

Emakume helduak ETXEKO LANAK EGIN EDO PERTSONA NAGUSIAK zainduko litzuke.  
☎ 74 32 51 Pili

TITULUDUN ERIZAINA, etxeetarako erizain edo praktikante zerbitzuak egiteko prest dago.  
☎ 74 02 33 Marta Diego (Erizain diplomatua)

## Bestelakoak

Kanela koloreko EHIZA TXAKUR TXIKI BAT TOPATU NUEN Urasandiko goiko partean, hilaren 5ean. Txakurra Udaltzaingora eramane nuen. Jabeak bertara jo dezake argibide bila.

IKASLE IPAR AMERIKARRAK HARTZEKO prest dauden familiekin harremanetan jarri nahi dugu, uda edo urtebete igarotzeko.  
☎ 74 15 14 Maite

WELCOME ingeles ikastaroak, BBB eta UBI EEBBetan eta Ingalaterran. Au-pair EEBBetan.  
☎ 74 15 14 Maite

Karitasek BI OHE DAUZKA behar dituenari emateko.  
☎ 74 15 09

## Partikularrak

Frantseseko klaseak ematen ditut. Baita itzulpenak ere ahoz eta idatziz.  
☎ 74 04 59 Jacqueline 74 44 51 (gauzez)

Injineritza eta magisteritza tituludunak KLASA PARTIKULARRAK ematen ditu.  
☎ 74 01 48 Alazne

MARRAZKETA LINEAL ETA DIEDRIKOKO klaseak ematen ditut.  
☎ 74 43 98 / 74 34 01 Iñaki

## Agurrak

11 urte bete zituen Guruzne Urkidiri, Zorionak! 5. mailako adiskideen partez. ZORIONAK!!

## PREMAZKO TELEFONOAK



### OSASUNA

Anbulategia:  
Larrialdiak.....461111  
Txanda hartzeko.....743354  
Planning-a .....742950  
Alkoholiko Anonimoak..740385  
D.Y.A (anbulantzia) ..464622  
Gurutze Gorria.....743864  
Mendaroko Ospitalea756264  
Dragomenpekotasun Z.741008  
Odol Emaileak .....743936

### GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442  
PESA (Eibar).....102131  
Taxi geltokia.....740898

### UDALA

Euskara Zerbitzua.....744366  
Kirol Zerbitzua .....744415  
Kultura Zerbitzua.....742158  
Mendaroko Udala ....756100  
Ongizate zerbitzua...743736  
Udaletxea .....741050  
Udaltzaingoa .....741394

### BESTELAKOAK

Caritas .....740142  
Elgoibarko Izarra.....741626  
IMI.....741196  
Kontsumo Bulegoa ...743088  
Liburutegia .....743525  
Musika Eskola .....742145  
Mintxeta .....744315  
Parrokia.....740842  
Polikiroldegia .....741361  
Postetxea.....741547

### HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296  
Zaharren Biltokia .....740526

### IKASTETXEAK

Haur Eskola.....74 21 41  
Herri Eskola .....74 08 79  
I.M.H. ....74 41 32  
Instituta .....74 02 67  
Ikastola .....74 44 41  
L.H.I. ....74 44 80  
Pilar Ikastetxea .....74 13 31

### KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....74 41 12  
El Diario Vasco .....74 40 73  
El Mundo .....74 27 59  
El Correo Español...74 10 82  
Egin.....10 84 21  
Zazpiki .....74 34 74



## PROIEKTU

# ELGOIBARKO HERRI ESKOLA



### LUDOTEKA

Bazkaldu ondoren...  
denok jolastera



### BIDEO GELA

Bideo bilduma zabala  
era guztietako ikus entzutezkoak

### 2 URTEKO GELA

Kopuru txikia  
irakaslea eta laguntzailea

### MUSIKA GELA

Maila guztietan solfeoa,  
txirula, euskal dantza

### LABORATEGIA

Ikertuz ikasiz  
eguneroko erabilpena



### LAGUNTZA GELA

Integrazioaz arduratzen  
garelako

### HIZKUNTZ LABORATEGIA

Ingelera era egokienean ikasteko  
25 ikaslerentzat  
guztientzat aurikularrak



### INFORMATIKA GELA

Teknologia berriak eskolan,  
10 ordenagailu ikasleentzat,  
arlotan bakoitzera egokitutako  
informatika



### GARRAIOA

Dohaineko autobusa auzo guztietatik



### JANTOKIA

Bertan prestatutako janaria  
Bi sukaldari  
225 pta. eguneko

### PSIKOMOTRIZITATE GELA

Jolasen bidez hezibidean

**AURREMATRIKULA EPEA ZABALIK** otsailaren 1etik-20ra

**HERRI ESKOLA** (☎ 74 08 79) Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza (2-12)

**MENDAROKO IKASTOLA** (☎ 75 61 41) Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza (2-12)

**ARREITURRE** (☎ 74 02 67) Derrigorrezko Bi garren Hezkuntza (12-16)

## PROIEKTU



# Elgoibarko Herri Institutua

### KARMELO LOIOLA

Gurasoen Elkarteko Lehendakari ordea

“Herri Institutuaren antolamenduak eta dinamikak, konfidantza osoa ematen dit”



### TIMOTEO UCIN

Herri Eskolako Zuzendaria

“Urte askotako esperientzia duen irakaslego euskalduna izango da ESO 12-14 atalean irakatsiko duena”

### NURIA SALEGI

Mendaroko gurasoa

“Gure seme alabak etorkizunerako prestatzen dituen proiektu bateratu honetan partaide sentitzen naiz”



### INIGO SORAZU

Mendaroko Ikastolako Zuzendaria

“Mendaroko irakasleok badakigu ez dagoela etenik ikasleek gure ikastolatik Institutura ematen duten urratsean. Harreman hauek are estuagoak izango dira oraindik aurrera”

### ANGEL UGARTEBURU

Arreiturre Institutuko Zuzendaria

“25 urte euskal irakaskuntza indartzen saiatu ondoren han eta hemen, sentimendu askoren artean poza da nabarmentzen dena, gure helburuak lortuz ari garela ikustean”



### MARIA JESUS ARANBURU

Institutuko irakaslea eta ikasketaburua

“Herriko Institutuan ari den profesional taldeak ez du inorekin alderatzeko lotsarik. Urte askotako iharduerak erakusten digu aurrera jarraitu beharreko bidea”

### ANDONI SEGUNDO

Herri Eskolako irakaslea eta ikasketa burua

“Sikopedagogiaren ikuspegitik, oso garrantzitsua da 12-16 arteko ikasleak toki berean eta aparte egotea, adin berezia izanik, halako tratamendua behar dutelako. Horregatik, ARREITURRE etapa honetarako kokapen aproposa da”



### XABIER BASURTO

Gurasoen ordezkari Institutuan eta Mendaron

Elgoibarko Herri Institutua euskal eskola bat da eta badakigu gure seme/alaba gazteenek ere heziketa eta prestakuntza egokia izango dutela, nagusiek izan duten bezalaxe”

## AURREMATRIKULA EPEA ZABALIK otsailaren 1etik-20ra

HERRI ESKOLA (☎ 74 08 79) Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza (2-12)  
MENDAROKO IKASTOLA (☎ 75 61 41) Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza